



# MEKATRONIKA INDUSTRIALEKO Goi-mailako Teknikaria

Familia profesionala: Instalatze eta Mantentze lanak

- 2 Ikasturte
- 2000 Ordu
- D Eredua



## ZER IKASIKO DUZU:

- Planoak, eskemak, espezifikazioak, planak eta prozedurak interpretatzen.
- Elementu komertzialak eta materialak identifikatzen eta aukeratzen.
- Makina konbentzionalak, eskuzko erreminta eta soldatzeko ekipoa erabiltzen.
- Sistema mekanikoak, elektrikoak, kontrol dunak, pneumatikoak eta hidraulikoak integratzen dituzten makinak muntatzen, doitzen eta martxan jartzen.
- Makina eta ekoizpen lerro automatikoen matxurak diagnostikatzen eta zuzentzen.
- Negozio aukerak antzeman.

## ZERTAN EGINGO DUZU LAN:

### Epe laburrera:

- Industriako makina eta ekipamenduen instalazioetan mantentze lanak egiteko prozesuen plangintzako eta programazioko teknikaria.
- Industriako makinaren edo lerro automatikoen teknikaria edo muntatzailea.

### Epe ertainera/luzera:

- Industriako makina eta ekipoen instalazioen muntatzaile taldeko arduraduna.
- Industriako makina eta ekipoen instalazioen mantentze lanetako langile taldeko arduraduna.

## IKASKETA PLANA

### 1. Maila

- Sistema mekatronikoen Irudikapen Grafikoa
- Sistema elektriko eta elektronikoak
- Makina-elementuak
- Sistema Hidraulikoak eta Pneumatikoak
- Fabrikazio-prozesuak
- Sistema Integrazioa
- Laneko prestakuntza eta orientabidea

### 2. Maila

- Sistema Mekatronikoen Konfigurazioa
- Mantentze-lanen eta kalitatearen prozesuak eta kudeaketa
- Sistema mekatronikoen Simulazioa
- Sistema Mekanikoak
- Mekatronika Industrialeko proiektua
- Ingeles teknikoa
- Enpresa eta ekimen sortzailea
- Lantokiko prestakuntza (LP)



"Mekatronika industrialeko goi mailako heziketa zikloa aukeratu nuen batipat heziketa zabala duelako, gai konkretu batetan zentratu gabe arlo askotan jorratzen duelako.

MGEPen ikastea aukeratu nuen, erreferentzia onak jaso nituelako, Oñatitik gertu dagoelako eta inguruko enpresekin harreman oso ona duelako .

Burutu genituen erronkak, enpresetan gaur egungo arazo edo beharrei erantzuten diotenak izan ziren. Adibidez, makina edo sistema bat martxan jartzen edo makina bat bere kontrol pantailarekin komunika erazten eta programatzen aritu ginen. Oso esperientzia aberasgarria izan da eta asko lagundu dit pertsonalki eta langile moduan garatzen. Are eta gehiago Ulma Packagingen DUALa egiten aritzeak."

**Iker Zubizarreta Ugarte (Oñati)**